

TXIROEN JANTOKIA

Bilbao'ko kaleetatik iñoiz ibilli zaree? Baietz uste dot.

Olan ba'da, ikusi dozuez ainbeste eskale, ijito, lanbako langille... eskean.

Eta, bear ba'da, errukia artuta, 5 edo 25 edo 50 pezeta emon dautsezuez. Gero eskeko-taldea batu da zuen inguruan.

Olakoetan, ondo etorriko jatzu Bilbon jan-toki bat ba-dagoala gose diranentzat jakitea. Non? Iralabari'ko Frantzisko'tarrenean.

Ogei urte dirala, duban jaten emoten dauan erakunde batek diardu Bilbo'n eta jantoki au guztiz ezaguna da eskekoen artean. Gose diranak ara joan ezkeru, lapikoko bero bat lortuko dabe.

1954'ko azillaren 11'n asi zan, aita Basabe ango lekaide-etxearen zuzendariak alkarteari pozez beterik auxe esan eutson: «Milla pezeta dodaz eta oneikaz beantsuentzat jantokia asi geinke».

Lekaideak irriparez artu eben nagusiak esanekoa, baiña onek milla lauerleko areik asikerea izan leitekezela benetan uste eban. Eta ez goan oker.

Eleizan diru-ontzi bat ipiñi eben eta eleiztarrak jakinda, erruki-egintza au euren diru-laguntzaz aurrera ateraten dabe.

«Bost urte daroadaz erakunde onen zuzendari —diñosku aita Imanol Unzurrunzaga'k—, eta aldi guzti onetan edozein tokitan lo egin eta gero ona lapiko beroa jatera datozen eskale asko ezagutzen dodaz. Jakiña, oraingo bizi-maillan ugari-ugari emotea eziñezkoa da, baiña egosaria, indabak, napar-illar edo garbantzuak, txillistak, amandollak, ogi-zati on bategaz beti aurkitzen dabez. *Lenngotan*, sukaldari-zeregiña Pura Iturralde'k egiten eban, baiña au emendik urten zanetik, geuk egiten dogu».

Egunero, berrogei ta amar inguruko taldea etorten da mirari au itxarotera, eta sinistedunen esku zabalari esker, miraria egiten da.

Geienak gizonak dira. Orain Portugal'eko umeai bazkaria emoten gagoz.

* * *

Gura dozue jakin baskaltiarrek zelan diarduen?

Ondo. Bear ba'da, noizik bein, moskortiren bat etorten da, baiña ez dabe emoten buruko miñik, euren artean ba-dakie gauzea atonduten, ez jake ezer eskatzen eta aугaitik ez daukue arazorik sortzen. Ori bai, guztiz susmaberak dira.



Eduardo

Ipuin edo gertaldi bat edesten izten daustazue?

Orain sei edo zazpi urte dirala, eldu zan gizon bat, jarrri zan besteak lez maian eta jan eban. *Egun* bi edo iru geiagotan be biurtu zan eta gero ez zan geiago agertu.

* * *

Garbiketea talde bateko andrak egiten dabe txandaka.

Igandeetan auzoetako gazte batzuk janariak banandu ta otseintzen dabez eta barriketa edo autu-mautuan bazkaltarrekin ekiten dabe, janariaren gaiñera zerbait geiago izan daiten, emoten dana.

Eskekoen asmakizunak jakinda, ikasi ta gogoan artuz, euren arazoak zelan bideratu leikezan agertzen eta ikasten ibiltzen dira.

Jantoki-alboan gaisotegi bat daukagu eta bear-bearrekoak diran osakaiak emoten dautseguz, baita soiñeko erabillien jatzitegi bat be eta soiñekoak ondo garbitu eta erata, zintzo-zontzo banatzen dautsez.

LETONA'k